

FLORA

Leire Arenas Belamendia, 16 urte

Azpeitia

Astelehena, 7

Erortzear den arrats gorri honetan
erortzear den eguzki laranja honetan
hiltzear den hiriaren argitasunean edo,
gaur ere aurkitu zaitut eserita, Flora, laztana.

Asteartea, 8

Zure begiek,
kontinente zaharraren edertasuna
dute aurrean garai, galant.
Zenbat fabrika gris eta usain txar
zenbat ke biriketan barna.
Zure bihotzak
progresua, aurrerapausua,
oihartzun urrun bat.
Dekadentzia, handinahia,
zorion ustezko samina.

Sorterria gogoan,
ahots urratuan,
begininien brilluan,
ta nik, zer esan dezaket?
Ezikusi eginik, ezinikusia sortu badizut barnean,
ze, nola adierazi, Flora: maite zaitut?

Asteazkena, 9

Tarteka zure negarra
astiro jausten da inora,
astiro jausten da inondik,
astiro jausten da jausi gabe,
jausten da isilik.

Gero betazal finak itxi, eta
ez nauzu begiratzen.

Baina gogotik tristatzen nauzu.

Osteguna, 10

Tarteka haserre aurkitzen zaitut,
Flora.

Ta nik apur bat baretu nahiko nuke askotan,
zure amorrua,
zakur gosetuari bezala jaten eman
eta lasaitu denbora batez.

Lasaitu goizetako kafesnea lez.

Lehortzen utzitako galtzerdiak,
apalean berrogei urte daramatzen liburua,
edo nitxoan berrogei urte daramatzen gizona lez.

Nahi zintuzket osorik.
Eta lasaitasunean.
Niretzat soilik.

Lotsaren kolore biziz jantzirik,
Pop-art estiloko Marilyn bat nintzateke zure eskue-
tan.

Gure mina ahantz dezagun eta,
elkarren nahiei erantzun...

BUM!!

Esnatu naiz
ez da gau iluna,
ez nago ohe zaharrear
izerditurik
maindire zurien artean.

Aurrera begiratzean zu ikusi zaitut, Flora,
Ia ahaztu zait, baina gaur jada

Ostirala, 11

Bai, ... gaur jada.

Denbora izan daitekeen erloju baten orratz gaine-
an goaz trostan,
zaldi-orratz traketsa, desobedientea eta eroa.
Gaur jada bihar da
eta bihar laster atzo izango da,
eta ez da ezer aldatu(ko).

Berriz ikusiko zaitut
hiriak sortutako produktu den
uda beroko eguzki fruta erortzear denean,
eta honek honela jarraituko du zu ohartu ezean,
inork ezer aldatu ezean.

Eta horrelakoetan gorroto zaitut, Flora, laztana.

-Rimbaud-